


LEZOKO UDALAK ARGITARATUTAKO DISKOAK




ATEKO UDALA



Tomas Garbizuren pianorako obra osoa biltzen duten hiru diskoen arteko lehena. Juan Padrosa da bilduma osoa grabatu duen piano jotzailea, Tomasekin batera musika hau sakon landu zuena bera. **Eusko Kadentziak, Minueto Vasco, Gizon Dantzak, Aurrekua, Ingurutxo, Kaxarranka eta Baztango Mutil Dantza** biltzen dira bertan.




Bigarren honetan, 1928. eta 1976. urteen artean idatzi zituen zenbait motatako obrak biltzen dira: **Malkoak (hileta dantza) Oroi-mina, Eibarko Kontrapasa, Canción del Circo, Lau Eusko Hasiera, Tango de Concierto, El Clavecín Vasco, Camino del Gólgota, Donostiatik Lezo aldea...** besteak beste.



Pianorako musika osoa ixten du hirugarren honek. Inork bazenik ere ez zekienean hor azaldu zen "Cantos y bailes tradicionales vascos" izeneko bilduma ederra. J. A. Santesteban musikarari donostiarrak harmonizatutako doinu sorta hartu eta itxura modernoagoa eman zion musikagile lezoarrak. Berrogeita bi pieza labur biltzen dira bertan.



Dakigun bezala, Tomás Garbizuk hamabost urte eman zituen Donostiako Kontserbatorioan organo ikasgaia irakasten. Konpositore eta organista zenez, goi mailako musika idatzi zuen instrumentu honetarako. Donostiako San Bizente eta Santa Maria elizetako Cavallé-Coll organoetan grabatu zuten musika hau J. M. Azkue, Esteban Elizondo eta Mari Koro Saenz organista gipuzkoarrek.



Garbizuk idatzi zituen meza ugarien arteko ezagunena. Arantzazuko basilika berriztatzearekin batera bertako frantziskotarrek antolatu zuten lehiaketarako idatzi zuen behiala bertako ikasle izan zenak. Lausardi abesbatzak eta Aitor Olea organistak Arantzazun bertan (zegokion bezala) grabatu zuten David Azurza maisuaren zuzendaritzapean.



Txistu eta organorako musika bikaina idatzi zuen Garbizuk. Herrikide zuen Polentzi Gezalak bultzatu zuen horretara. Polentzi bera zen, beraz, musika honen hartzzailea; berarentzat idatzi zuela, alegia. Laurogeita bi urteko txistulari lezoarrak (Mari Koro Saenz organistarekin batera) grabatu du historiko bilakatu den disko eder hau.



Ehundik gora lieder biltzen ditu Tomasen katalogo zabalak. Horien arteko hogeit hamarri dituzte disko honetara Javier Solaun tenor bizkaitarrak eta Alejandro Zabala, hain abeslari ezagun (Ainhoa Arteta, kasu) pianoz lagundu dituen piano jotzaile gipuzkorrak.



 LUIS URTEAGA (1882-1960) VESPERE DE EXALTACIONE SANTIS GREGES (1940)	 TOMAS GARBIZU (1901-1989) GURUTZE SANTILAREN BEZPERA (1983)
	
LEZOKO PARROKIAKO ABESBATZA SUTARGI ABESBATZA ORGANISTA PATXI INTXAUURANDIETA ZUZENDARIA JOXE MIGEL AMIANO	